



**Lankidetza
publiko-sozialerako
ezaugarri-kartak**



Bherria, Eusko Jaurlaritzako Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritzak Boluntariotzaren Euskal Kontseiluarekin batera sustatutako programa bat da.

Diseinua eta garapena: Komunikatik, ColaBoraBora eta Asier Gallastegi.

Diseinu grafikoa: ojobuey.

Karta-sorta hau 2023ko martxoan editatu eta argitaratu da CC-BY-SA 4.0 lizentziapean —egungo bertsioa eta ondorengoak—, eta Management 3.0k sortutako *Moving Motivators* txarteletan inspiratuta dago.

Web orrialdean deskarga daitekeen bertsioa aurki dezakezu.

www.bherria.eus



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTU JAUSTIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILEA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD
JUSTITIA Y POLÍTICAS SOCIALES

BOLUNTARIOTZAREN
EUSKAL KONTSEILUA



CONSEJO VASCO
DEL VOLUNTARIADO

1.

JOKOAREN LABURPENA

orr. 02-03

2.

TESTUINGURUA ETA HELBURUAK

orr. 04-05

3.

NOLA JOKATU

orr. 06-13

4.

LANKIDETZA PUBLIKO-SOZIALERAKO 10 ATRIBUTUEI BURUZ

orr. 14-25

1.

JOKOAREN LABURPENA

Zure eskuetan duzu lankidetza-prozesuetako 10 atributuri buruzko karta-sorta. Tresna honek lankidetza publiko-sozialeko esperientzien arrakastagakoak ulertzeko, alderatzeko eta aztertzeke modua errazteko helburua du.



**3-6
jokalari**

pertsona gehiagok jokatzeko beste karta- sorta bat behar da



**45'
gutxi gorabehera**

ariketarekin lotu nahi den sakontasunaren arabera

Jokorako zenbait gomendio:

- Bilatu leku lasaia, mahai handi batekin, kartak zabaldu eta hitz egiteko.
- Jokalarietako batek behatzailearen rola bete behar du. Elkarrizketa dinamizatu ahal izango ditu. Idatzi ondorioak, hausnarketa esanguratsuak eta ikaskuntzak (papera eta boligrafoa beharko dira).
- Begirada kritikoa eta jarrera eraikitzailea izateko gonbita egiten zaie. Eta, batik bat, jolasten goza dezatela!

2. TESTUINGURUA ETA HELBURUAK

Lankidetzaren publiko-soziala ulertzeko lanaren eta Bherria-n azken urte hauetan jasotako ikaskuntzen ondorioz, hainbat ezaugarri definitu ditugu. Administrazio Publikoaren eta herritarren arteko lankidetzaren esperientzien arrakasta-gakoak ulertzeko, alderatzeko eta aztertzeko modua errazten duten zenbait atributu definitu ditugu.

10 ezaugarrien sakontzean, lankidetzaren proiektuen inguruan hausnartu ahal izateko, jolas txiki hau garatu dugu.

Ezaugarriek planteatutako ikuspegi desberdinak kontuan hartuta, hautatutako proiektuaz hitz egin, ebaluatu eta hobetu beharreko alderdiak aurkitu ditzakegu, edo, sortzen diren ikaskuntzak beste proiektu batzuetara eraman.

Joko honen bitartez proposatzen den erronka da lantzen ari garen proiektuan edo proiektuetan atributu horiek betetzen duten lekuaren inguruko hausnarketa egitea (eta zein leku betetzea interesatzen den).

Halaber, proiektuaren ondorengo faseetan ezar daitezkeen proposamenak aztertzea proposatzen da.

3. NOLA JOKATU

Jokatu aurretik...

- 3 eta 6 pertsona arteko taldeetan jokatzea gomendatzen dugu.
- Horietako batek behatzaile-lanak egin behar ditu, elkarrizketa dinamizatu eta prozesu osoari buruzko informazioa jasotzearekin batera. Elkarrizketa azpimarratzen bada ere, interesgarria da 'esaten ez dena' jasotzea, prozesuaren beraren elementua.
- Jarraibideak oso-osorik irakurriko ditugu baita atributuak ere.
- Jokoan zehar argazkiak ateratzea iradokitzen dugu, emaitzak eta ondorioak osatzeko, eta saioa gogoratzeko.

Erronka/proiektua hautatzea

Garrantzitsua da proiektu zehatz batean lan egitea.

- Parte hartzen duten pertsona guztiek proiektu bera partekatzen badute, hortik lan egingo da.
- Pertsona bakoitzak proiektu ezberdina badu, ariketak aukera emango du gako horien gaineko gogoeta egiteko proiektu bakoitzeko testuinguru ezberdinekin eta baita rolekin ere alderatuta.

1. urratsa



3-5 min.

Ezaugarriak garrantziaren arabera ordenatzea (ezkerra garrantzitsuena, eta eskuin aldera garrantzi gutxiagokoak).

Jokalari bakoitzak banaka bere rankinga egingo du. Kontzentratzeko fasea da, isilik egotekoa, lan pertsonala egitearren.



Urrats honek denbora bat behar du, eta behatzaileak taldea lanean ikus dezake.

2. urratsa



20 min.

Taldean sinkronizazioa: banako rankingak partekatzea.

Taldeko kide bakoitzak bere ezaugarriaren ordena azalduko die gainerakoe. Behatzaileak elkarrizketa apur bat bultza dezake geratu edo horrek energia galdu duela ikusten bada.

Garrantzitsua da azalpen bakoitza entzutea: galdetu eta ulertu. Horrek elkarrizketa abstraktuenak saihesten ditu, taldeari elkar ulertzen eta batak bestearengandik ikasten laguntzearekin batera.

Puntu honetan gauza ez da gure rankinga aldatzea. Hain zuzen ere, gainerako pertsonak uste dutena ulertzen ahalegindu behar da

eta elkarrizketa bidezko bat ireki proiektuen gainean, gako batzuk nabarmenagoak eginez eta haiei buruzko gogoeta erraztuz.



Fase honetan zehar, behatzaileak bakoitzaren emaitzak idatziko ditu, ondoren erabili ahal izateko. (taldeko kide bakoitzeko 2 minutuko azalpena). Halaber, taldea bultzatzen du ordena (ranking) desberdineen bere behaketei buruz hitz egitera. Zer ikusi, ikasi eta sentitu zuten? Idatzi erantzunak.

3. urratsa



10 min.

Nola eragin dezake aldaketa batek atributu horien egoeran?

Urrats honen bitartez, proiektuan zehar sor daitezkeen zenbait egoera aurkeztu nahi dira eta ikusi atributu horien egoeran zer-nolako eraginak izan ditzaketen. Jokalariekegoerak ekartzen dituzte haien esperientzien arabera.

Informazio honen bitartez, ez dugu aldatuko aurrez egindako rankinga; txartela gorantz mugituko dugu atributuan aldaketa positiboa eragin duela uste badugu, eta beherantz aldaketa negatiboa dela uste bada.

Urrats honek baita ere balio dezake prozesuan zehar hartu beharreko erabaki posibleen gaineko test gisa.



Behatzaileak behatutakoa laburtuko du. Testu txiki bat egin daiteke jasota uzteko.

4. urratsa



10 min.

Atributu horien egunerokoan duten lekuari buruzko hausnarketa.

Azken elkarrizketa bat egitea proposatuko da proiektuetako testuinguruen eta rolen arteko aldearen eta horiek indartzen edo ahultzen dituzten ekintzen inguruan.

Zer erabakik mugiarazten dute atributu- kopuru handiena? Zeintzuk izan daitezke jokora deitutako pertsona bakoitzaren esku dauden eta proiektua garatzen laguntzen duten ekintzak?



Behatzaileak hirugarren urratsean bezala jokatuko du.

4.

LANKIDETZA PUBLIKO-SOZIALERAKO 10 ATRIBUTUEI BURUZ

Karta-sorta honetako kartek 10 ezaugarrietako baten gainean dagoen aingura-laburpen bat dute. Hala ere, jarraian zehaztuko dugu horietako bakoitza zertan datzan.

helburuaren argitasuna

or. 16

aurrekontua eta baliabideak

or. 17

bilbe komunitarioa

or. 18

lankidetzarako modua

or. 19

irekiera-maila

or. 20

bideraketarako rola

or. 21

komunikazioa

or. 22

hibridazioa

or. 23

koordinazioa

or. 24

ebaluazioa

or. 25



helburuaren argitasuna

Ezaugarri horretaz erreparatuta, ondorengo ezaugarrien gaineko gogoeta egiten dugu:

- Artatu beharreko erronkaren definizio parte-hartzailea.
- Gardentasuna, proiektuko interesei eta inplikaturako eragileei dagokienez.
- Inpaktuaren mugak ezartzea eta proiektuaren eragin-ahalmena argitzea.
- Informaziorako sarbidea bermatzea eta partekatutako akordioak eta ildoak kontuan izatea.



aurrekontua eta baliabideak

Baliabide ekonomikoei eta proiektua garatzeko beharrezko azpiegiturei erreparatuko diegu.

- Baliabideak jartzea prozesuaren fase bakoitzerako: aldez aurretik (erronka definitzea eta zehaztea, prozesua diseinatzea), parte hartzeko prozesua garatzea, eta ondorengoak ezartzea/ desbideratzea.
- Proiektuak finantzatzea funtsezkoa da eragina izan eta denboran iraun dezaten.
- Baliabideak ez dira diruzkoak bakarrik; besteak beste, azpiegiturak, dedikazioa, prestakuntza eta laguntza teknikoa eta profesionala behar dira.



bilbe komunitarioa

Lankidetzaren aurretik, elkarrekin konektatuta dauden eta ikuspegi komunitarioa partekatzen duten erakunde, kolektibo, elkarte eta proiektu herritarrez ari gara. Hona hemen ezaugarri batzuk:

- Tokiko errealitatea ezagutzea: proiektuaren gaikako arloan lan egiten duten kolektiboak, elkarteak edota sareak.
- Tokiko errealitatearekin elkarreragitea.
- Sare hori bultzatzeko eta indartzeko ekintzak.
- Bilbe hori eta lurraldean betetzen duen lekua onartzea.



lankidetzarako modua

Partekaturiko proiektuetan herritarren eta Administrazio Publikoaren arteko lankidetzak hartzen dituen moduak ulertu nahi ditugu:

- Konfiantzazko, errekonozimenduko eta elkarrekikotasunezko harremanak eraikitzea.
- Loturak ezartzea administrazioetik/ administrazioarekin eta ez soilik pertsona teknikariek: lankidetzas-parruak, akordioak, hitzarmenak, e.a.
- Bilbe komunitarioaren eta sozialaren arteko lotura ez eskuordetzeak duen garrantzia (esate baterako, enpresa hornitzaileei).



irekiera-maila

Lankidetzaren prozesu bateko inklusibotasun eta parte-hartze mailari buruz ari gara:

- Prozesu irekiak diseinatzea (parte-hartze plurala eta prozesu osoari edo zati bati irekia, parte hartzeko formula ezberdinak eta moldagarriak, e.a.).
- Kanalak, erremintak, metodologiak eta baliabideak eskura jartzea parte har dezaketen pertsona guztiek parte hartu ahal izan dezaten.
- Sarean lan egitea eta pertsonen eta erakundeen arteko loturak indartzea helburu gisa.



bideraketarako rola

Proiektu horiek rolak eta trebetasunak behar dituzte lankidetzaz bideratzeko eta bultzatzeko:

- Talde-prozesuen oinarriko nozioak, bideratzea, bitartekaritza, gatazkak konpontzea.
- Harremanetarako trebetasunak garatzea (soft skills): entzute aktiboa, enpatia...
- Ahalbidetzeko jarrera baterantz aldatzea: nola egin ahal den ikustea, irtenbide baten bilaketa proaktiboa, beharrezko informazioa...



komunikazioa

Komunikazioa behar bezala erabiliz gero, eragina eta inplikazioak areagotzen dira proiektuetan. Honako hauek duten garrantziari buruzko gogoeta egin dugu:

- Komunikazioa planifikatzea fase bakoitzean.
- Deialdiaren edo hedapenaren baliabideak erabiltzeaz gain, arreta berezia jartzen diogu kontakizun kolektiboa eraikitzeari (ahots anitza eta bozgorailua).
- Komunikazio digitaleko trebetasunak sartzeari (autonomia, fidagarritasuna, berehalakotasuna, neurketa...).



hibridazioa

Hibridazioa prozesua dela esan dezakegu, geruza digitalean egindako lanak topaketaren espazio presentzialak indartzen amaitzen baitu. Atributu honek ezaugarri hauek ditu:

- Teknologia digitalen presentzia.
- Teknologia horiek erabiltzeko ezagutza.
- Teknologia horiek erabiltzeko beste pertsonak trebatu ahal izatea. (Edo horietarako sarbidea ziurtatzea).
- Prozesurako onuragarriak diren kasuetan aplikatzea...



koordinazioa

Elkarrizketak ehunduz eraikitzen dira proiektuak, eta koordinazio-guneak leku pribilegiatuak dira horiek sortzeko. Horretarako, beharrezkoa izango da:

- Koordinaziorako espazio funtzionalak eta operatiboak eratzea.
- Espazio horiek definitzea, horien funtzioak eta helburuak zehaztuz.
- Erraz (argiak, ulergarriak eta sarbide librekoak izatea).



ebaluazioa

Ebaluazio egoki eta praktiko batek proiektua hobetzen lagunduko du (ebaluazioa- kontrastea-ikaskuntza). Hauek dira ezaugarri horren gakoak:

- Aurrez definitzea neurtzeko adierazle argiak eta ulergarriak.
- Neurtzeko hainbat tresnaz hornitzea, tresna arinak eta parte-hartzaileak (behaketa + elkarrizketak + inkestak).
- Ebaluazioak egitea prozesu osoan zehar.
- Ebaluazio-irizpideak argitzea.
- Eskala-galderak diseinatzea eta abian jarritako baliabideekin konektatzea.

Jakin badakigu proiektu baten arrakasta ez dela atributu horien garapenaren batuketa zehatza.

Baina, ariketa honek laguntzen digu datu horien irudikapen bisuala errazten duen eskala batean erantzuteko indarrari buruz hausnartzen.

Ariketa hau hobetzen jarraitzen dugu eta esperimentatuz egiten dugu.



bherria

#sustatu
#lankidetza
#publiko-soziala

www.bherria.eus

claridad en el propósito

A green target icon consisting of three concentric circles and a central dot, positioned in the center of the page.

- **Transitar por las fronteras.**
- **Reconocer las tensiones.**
- **Compartido y para el bien común.**
- **Claridad y foco.**
- **Atender potenciales y emergentes.**

helburuaren argitasuna



- Mugetatik ibiltzea.
- Tentsioak onartzea.
- Partekatua eta guztion onerako dena.
- Argitasuna eta fokoa.
- Potentzialak eta emergenteak artatzea.

presupuesto y recursos

An orange line-art icon depicting a desk with a chair on the left, a laptop on the desk, and a briefcase on the floor to the right. The text 'presupuesto y recursos' is arched over the top of the icon.

- **Destinar recursos a cada fase del proceso.**
- **Objetivo de impacto y sostenibilidad.**
- **Dinero, infraestructuras, formación, apoyo...**

aurrekontua eta baliabideak

An orange line-art icon depicting a building on the left, a table with three chairs in the center, and a briefcase on the right. The entire icon is enclosed within a semi-circular arc.

- **Prozesuaren fase bakoitzera baliabideak bideratzea.**
- **Inpaktuaren eta iraunkortasunaren helburua.**
- **Dirua, azpiegiturak, prestakuntza, laguntza...**

trama comunitaria



- **Conocimiento de la realidad local.**
- **Acciones de apoyo y fortalecimiento de ese tejido.**
- **Interacción con esa realidad local.**

bilbe komunitarioa




- **Tokiko errealitatea ezagutzea.**
- **Bilbe komunitario hori babesteko eta indartzeko ekintzak.**
- **Tokiko errealitate horrekiko interakzioa.**

forma de colaboración




- **Establecer relaciones de confianza, reconocimiento y reciprocidad.**
- **Reforzar vínculos personales y organizacionales.**

Lankidetzaren modua




- **Konfiantzazko, errekonozimenduko eta elkarrekotasunezko harremanak ezartzea.**
- **Lotura pertsonalak eta antolakuntzakoak indartzea.**

grado de apertura



- **Diseño de procesos abiertos y universales.**
- **Metodologías y recursos para participación diversa.**
- **Trabajo en red y fortalecimiento de vínculos.**

irekiera-maila



- **Prozesu irekiak eta unibertsalak diseinatzea.**
- **Aniztasunean parte hartzeko metodologiak eta baliabideak.**
- **Sare lana eta loturak sendotzea.**




- **Reforzar las habilidades más relacionales.**
- **Favorecer e integrar la diversidad.**
- **Crear espacios de seguridad y confianza.**
- **Dedicar tiempo al encuentro.**




- **Trebetasun erlazionalenak indartzea.**
- **Aniztasuna erraztea eta integratzea.**
- **Segurtasun- eta konfiantza-espazioak sustatzea.**
- **Elkartzeko denborak sortzea.**

comunicación



- **Planificar la comunicación.**
- **Construcción de relato colectivo.**
- **Habilidades de comunicación digital.**

komunikazioa



- **Komunikazioa planifikatzea.**
- **Kontakizun kolektiboa eraikitzea.**
- **Komunikazio digitalerako trebetasunak.**

hibridación




- **Conocimiento de tecnologías digitales.**
- **Uso pertinente y a favor de un proceso también físico.**
- **Capacitar a las personas en el uso de estas tecnologías.**

hibridazioa




- **Teknologia digitalak ezagutzea.**
- **Erabilera egokia eta prozesu fisiko baten aldekoa.**
- **Pertsonak teknologia horiek erabiltzen trebatzea.**

coordinación



- **Espacios funcionales y operativos.**
- **Determinación de tareas y objetivos.**
- **Claridad, comprensión y libre acceso.**

koordinazioa




- **Espazio funtzionalak eta operatiboak.**
- **Eginkizunak eta helburuak zehaztea.**
- **Argitasuna, ulermena eta sarbide libre.**

evaluación



- **Cultura para la mejora continua.**
- **Definir indicadores claros.**
- **Herramientas de medición diversas y participadas.**
- **Medición durante todo el proceso.**

ebaluazioa



- **Etengabeko hobekuntzarako kultura.**
- **Adierazle argiak zehaztea.**
- **Askotariko neurketa-tresnak, arinak eta parte-hartzaileak.**
- **Neurketa prozesu osoan zehar.**